# OSTIRAL HONETAN HASIKO DA ARETAN 2021eko E.H-ko 4 1/2-ko ELITE TXAPELKETA

Euskadiko Euskal Pilota Federakuntzak, Laudio Udala eta Herriaren pilota Elkartearekin batera antolatuko du 4 1/2-ko Elite txapelketa.

Elite txapelketa hau, edizio honetan ohiko egutegian jokatuko dena, urriko azken ostiralean hasi eta abenduko lehenbiziko ostiralean bukatu da eta bertan espezialitateko honetako pilotari amateur onenak izango dira. Bertan 8 pilotarik parte hartuko dute eta kopa sistemako formatuan jokatuko dute. Txapelketa honetan parte hartzeko irizpideak 2019ko azaroaren 30an ospatutako Batzar Orokorrean onartu ziren:

- **4 pilotari:** Arabako, Bizkaiko, Gipuzkoako eta Nafarroako federazioek antolatzen dituzten aurreko denboraldiko 4 ½ txapelketetako txapeldunak. Federazioren batek txapelketa antolatzen ez badu bere lurraldeko pilotari bat hautatu beharko du lurraldeko ordezkari gisa.
- **2 pilotari:** aurreko denboraldiko ezker paretako 4 ½-ko Elite txapelketako finalistak.
- **2 pilotari:** irizpide teknikoz.
- **Oharra:** aurreko denboraldiko lurraldeko txapelduna eta aurreko urteko Ezker Paretako 4 ½-ko Elite txapelketako finalistak errepikatzen badira, lurraldeko txapelketako bigarren sailkatuak edo ondorengoak jokatuko du.
- **Oharra:** pilotari batek huts eginez gero ordezkoa jartzeko ondorengo irizpideak jarraituko dira:
    - Lurraldea ordezkatzen duen pilotarien kasuan, lurraldeko txapelketako sailkapena jarraituko da ordezkoa hautatzeko.
    - Aurreko denboraldiko Ezker Paretako 4 ½-ko Elite txapelketako finalistek edo irizpide teknikoz hautatutako pilotarien kasuan, irizpide teknikoz hautatuko da ordezkoa.

Aurtengo txapelketaren egutegia honela antolatuko da:

- Lehengo final-laurdena: 2021/10/29 Ongay (Irurtzun) vs Isasmendi (Zaramaga).
- Bigarren final-laurdena: 2021/11/05 Exposito (Hernani) vs Canabal (Oberena).
- Hirugarren final-laurdena: 2021/11/12 Karregal (Adiskide) vs Alberdi (Ilunpe).
- Laugarren final-laurdena: 2021/11/19 Espinal (Uharte) vs Aurrekoetxea (Lemoa).
- Finbalerdiak: 2021/11/26. 1. final-laurdeneko irabazlea vs 2. final-laurdeneko irabazlearen aurka eta 3. final -laurdenetako irabazlea vs 4. final-laurdenetako irabazlearen aurka.
- Finala: 2021/12/03

Final-laurdenak eta finalerdi guztiak Euskadiko Euskal Pilota Federakuntzako sare sozialetan (Facebook), streaming bidez ikusteko aukera egongo da eta finala ETBtik emango da.

Euskadiko Euskal Pilota Federakuntzaren izenean eskerrak eman nahi dizkiegu Laudioko Udalari eta Herriaren Pilota Elkarteari egoera berezi honetan txapelketa hau aurrera eramateko egin duten esfortzuarengatik.

# ESTE VIERNES COMIENZA EN ARETA EL CAMPEONATO ÉLITE 4 ½ E.H 2021

La Federación de Pelota Vasca de Euskadi, en colaboración con el Ayuntamiento de Laudio y Herriaren Pilota Elkartea, organizará el campeonato élite 4 ½.

Este campeonato élite, que en esta edición se disputará en el calendario habitual, comenzando el último viernes de octubre y finalizando el primer viernes de diciembre contará con los mejores pelotaris amateurs de esta especialidad. En dicho campeonato tomarán parte 8 pelotaris y jugarán en formato de copa. Los criterios de participación de este torneo fueron aprobados en la Asamblea General celebrada el 30 de noviembre de 2019:

- **4 pelotaris:** los campeones de los campeonatos de 4 ½ de la temporada pasada organizados por las federaciones de Araba, Bizkaia, Gipuzkoa y Nafarroa. En el caso de que alguna federación no organice el campeonato, dicha federación tendrá que seleccionar un pelotari que represente al territorio.
- **2 pelotaris:** finalistas del campeonato Elite 4 ½ Pared Izquierda de la pasada temporada.
- **2 pelotaris:** decisión técnica.
- **Nota:** en el caso de que coincidan los finalistas del campeonato Elite 4 ½ Pared Izquierda de la temporada pasada con el campeón de algún campeonato territorial de 4 ½ de la temporada pasada, disputara el campeonato el siguiente clasificado en el campeonato territorial correspondiente.
- **Nota:** en el caso de que un pelotari falle, los criterios para decidir el suplente serán los siguientes:
    - En el caso que falle el pelotari que representa al territorio, se seguirá la clasificación del campeonato territorial para decidir el suplente.
    - En el caso de que falle alguno de los finalistas del campeonato Elite 4 ½ de la temporada pasada o alguno elegido mediante decisión técnica, el suplente se decidirá mediante decisión técnica.

El calendario del campeonato de este año se organizará de la siguiente manera:

- Primer cuartos de final: 29/10/2021 Ongay (Irurtzun) vs Isasmendi (Zaramaga).
- Segundo cuartos de final: 05/11/2021 Expositol (Hernani) vs Canabal (Oberena).
- Tercer cuartos de final: 12/11/2021 Karregal (Adiskide) vs Alberdi (Ilunpe).
- Cuarto cuartos de final: 19/11/2021 Espinal (Uharte) vs Aurrekoetxea (Lemoa).
- Semifinales: 26/11/2021 ganador del primer cuartos de final vs ganador segundo cuartos de final y ganador del tercer cuartos de final contra el ganador del cuarto cuartos de final.
- Final: 03/12/2021.

Todos los cuartos de final y las semifinales se podrán ver en streaming en las redes sociales de la Federación de Pelota Vasca de Euskadi (Facebook) y la final se retransmitirá por ETB.

En nombre de la Federación de Pelota Vasca de Euskadi queremos agradecer al Ayuntamiento de Laudio y a Herriaren Pilota Elkartea el esfuerzo que han realizado para llevar a cabo este campeonato en esta situación tan especial.